

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

SEGURAKO UDALA

2023. urteko Egutegi Fiskala

2022ko abenduaren 23ko 117/2022 Alkatetza-Ebazpen bidez, 2023. urteko Egutegi Fiskala onartu da. Horregatik guztiagatik, Segurako udalerriko zergadunei 2023ko ekitaldiko Tributuaren Egutegi Fiskalaren berri ematen zaie, non ordainketa-aldiak zehazten diren. Epeak adierazitako egunean amaituko dira, edo baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean.

Errolda fiskalak, ordaindu beharreko kuotak eta horiek zehazten dituzten tributu-elementuak barne, jendaurrean jarriko dira udal bulegoetan, dagozkien kobrantza aldian hasi baino hamabost egun lehenago, eta hamabost eguneko epean.

Kuotak eta gainerako tributu-elementuak, dagozkien erregistroetan alta ematen ez duten heinean, subjektu pasiboari dagoeneko banan-banan jakinarazitako zerga-egitate bati egiten diote erreferentzia, kolektiboki jakinaraziko dira, martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorraren 98.3 artikulua eza-rritakoaren babesean.

Errolden erakustaldi publikoen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da erakustaldi publikoko epearen azken egunetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean.

Hala ere, aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorren kasuan, errekurtsioa borondatezko ordainketa-aldian edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean jarri ahal izango da.

Azaldutako egutegi fiskalaren iragarki horrek kobrantza-iragarkiaren funtzioa ere bete du. Kobrantza hori honako alderdi hauen arabera egingo da:

a) *Ordaintzeko modua*: Helbideratutako ordainagiriak zuzenean zordunduko dira baimendutako banku-kontuetan.

Helbideratu gabeentzat, zorra ordaintzeko beharrezkoa den dokumentua posta arruntez bidaliko da zergadunen helbide fiskalera.

Zergadunak ez badu ordainagiri hori jaso, Udalean eskatu beharko du (Lardizabal 5), astelehenetik ostiralera, goizeko 8:00etatik 14:30era, eta asteazkenetan, 15:30etik 18:00etara.

b) *Ordainketa-lekuak*: Entitate laguntzaileetan.

Borondatezko ordainketa-aldi gisa adierazitako epeak igarota, zorrak premiamendu-prozeduraren bidez exijituko dira, eta betearazpen-aldiko errekarquak, berandutze-interesak eta, hala badagokio, sortzen diren kostuak sortuko dituzte. Tributu horien aplikazioari eta eraginkortasunari buruzko egintzen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, tributu horiek eman zituen organoaren aurrean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, borondatezko ordainketa-aldian edo hilabeteko epean, ordainketa amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Era berean, interesdunak berraztertze errekurtsoaren ebazpen espresuaren edo isilpekoaren aurka errekurtsoa ekonomiko-administratiboa aurkeztu ahal izango dio Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioari, aukerako izaeraz eta administrazioarekiko auzibidera jo aurretik, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

AYUNTAMIENTO DE SEGURA

Calendario Fiscal del año 2023

Por Resolución de Alcaldía 117/2022, de 23 de diciembre de 2022, se ha aprobado el Calendario Fiscal para el 2023. Por todo ello, se pone en conocimiento de los contribuyentes del municipio de Segura, el Calendario Fiscal de los Tributos del ejercicio de 2023, donde se establecen los períodos de pago. Los períodos finalizarán el día señalado, o siendo este inhábil, el inmediato hábil posterior.

Los padrones fiscales, conteniendo las cuotas a pagar y los elementos tributarios determinantes de las mismas, se expondrán al público en las oficinas municipales quince días antes de iniciarse los respectivos períodos de cobro y por un período de quince días.

Las cuotas y demás elementos tributarios en cuanto no constituyan altas en los respectivos registros, sino que hacen referencia a un hecho imponible ya notificado individualmente al sujeto pasivo, serán notificadas colectivamente, al amparo de lo que establece el art. 98.3 de la Norma Foral General Tributaria 2/2005 de 8 de marzo.

Contra la exposición pública de los padrones se podrá interponer recurso de reposición en el plazo de un mes a contar desde la fecha de finalización del período de exposición pública.

No obstante, tratándose de deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva, el recurso podrá interponerse durante el período voluntario de pago o durante el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de finalización de aquel.

Este anuncio de calendario fiscal expuesto cumplirá también la función de anuncio de cobranza. Cobranza que se efectuará de acuerdo con los siguientes extremos:

a) *Modo de ingreso*: Los recibos domiciliados se cargarán directamente en las cuentas bancarias autorizadas.

Para los no domiciliados, el documento preciso para efectuar el pago de la deuda será enviado por correo ordinario al domicilio fiscal de los contribuyentes.

Si el contribuyente no hubiera recibido el citado recibo, deberá solicitarlo en el Ayuntamiento (Lardizabal 5) de lunes a viernes de 8:00 a 14:30 horas y miércoles de 15:30 a 18:00 horas.

b) *Lugares de pago*: En las entidades colaboradoras.

Transcurridos los plazos señalados como períodos de pago voluntario sin haberse efectuado el mismo, las deudas serán exigidas por el procedimiento de apremio y devengarán los correspondientes recargos del período ejecutivo, intereses de demora y, en su caso, las costas que se produzcan. Contra los actos sobre la aplicación y efectividad de estos tributos podrá interponerse, ante el órgano que los dictó, el correspondiente recurso de reposición previo al contencioso-administrativo durante el período voluntario de pago o durante el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de finalización de aquel. Así mismo, la persona interesada podrá interponer contra la resolución expresa o tácita del recurso de reposición, con carácter potestativo y previamente a la vía contencioso-administrativa, reclamación económico-administrativa ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la notificación.

Egutegi Fiskal hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, www.segura.eus orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirubilketa Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 18. artikuluan aurreikusitako kobrantza-iragarkiaren funtzioa betetzeko.

1. Orokorrean, urtean behin ordaintzen diren tributuen epeak honakoak dira:

Este Calendario Fiscal se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en la página www.segura.eus y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a los efectos de cumplir la función de anuncio de cobranza, previsto en el artículo 18 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

1. Con carácter general, se establece que los periodos para pagar los diferentes tributos de carácter anual sean los siguientes:

Kontzeptua Concepto	Ordaintzeko borondatezko epea Plazo de pago voluntario	Helbideratutako erreziboak Cobro de recibos domiciliados
I. Urtean behin ordaintzen diren tributua / Tributos de periodicidad anual		
A. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga / Impuesto de los vehículos de tracción mecánica	Apirilak 3 – ekainak 9 3 de abril – 9 de junio	Borondatezko epearen azken egunean / Último día del periodo voluntario
B. Ondasun higiezinaren gaineko zerga / Impuesto sobre bienes inmuebles	Maiatzak 15 – ekainak 30 15 de mayo – 30 de junio	Borondatezko epearen azken egunean / Último día del periodo voluntario
C. Ibilgailuen sarbidea espaloitik eta aparkaleku erreserba bide publikoan / Entrada de vehículos a través de la acera y reserva de aparcamiento de los mismos en la vía pública	Abenduak 1 – abenduak 31 1 de diciembre – 31 de diciembre	Abenduak 1 – abenduak 31 1 de diciembre – 31 de diciembre
D. Terrazak / Terrazas	Abenduak 1 – abenduak 31 1 de diciembre – 31 de diciembre	Abenduak 1 – abenduak 31 1 de diciembre – 31 de diciembre
E. Baratzak / Huertas	Abenduak 1 – abenduak 31 1 de diciembre – 31 de diciembre	Abenduak 1 – abenduak 31 1 de diciembre – 31 de diciembre
II. Hilean behin ordaintzen diren tributua / Tributos de periodicidad mensual		
A. Etex etxeko laguntza / Asistencia domiciliaria	Hurrengo hileko 2. astea / 2.ª semana del siguiente mes	Hurrengo hileko 2. astea / 2.ª semana del siguiente mes
B. Ikastaroak / Cursos	Hurrengo hileko 1. astea / 1.ª semana del siguiente mes	Hurrengo hileko 1. astea / 1.ª semana del siguiente mes

2. Ordaintzeko borondatezko epearen azken eguna edo ordainketa helbideratua egiteko eguna baliogabea izanez gero, hurrengo egun baliadunera luzatuko da. Aparteko gorabeherarik izanez gero, Alkateak borondatezko epealdian ordaintzeko epea luza dezake.

3. Ondorengo salbuespen eta hobarien eskaeren epeak honakoak dira:

2. En el caso de que el último día del periodo voluntario o el día de cobro por domiciliación sea inhábil se trasladará dicha fecha al siguiente día hábil. Por circunstancias extraordinarias el Alcalde / la alcaldesa podrá ampliar el plazo de pago en periodo voluntario.

3. Se establecen los plazos de solicitud de las siguientes exenciones y bonificaciones:

Kontzeptua Concepto	Eskaera epea Plazo de solicitud
A. Ondasun higiezinaren gaineko zerga / Impuesto de bienes inmuebles 1. Familia ugarien hobaria / Bonificación familias numerosas B. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga / Impuesto de vehículos de tracción mecánica 1. Motor elektrikoa duten ibilgailuen hobaria / Bonificación vehículos de motor eléctrico 2. Ibilgailu hibridoaren hobaria / Bonificación vehículos híbridos 3. Ibilgailu historikoen hobaria / Bonificación vehículos históricos C. Hondakinen bilketa eta ezabaketa / Recogida y eliminación de residuos	Urtarrilak 1 - otsailak 15 1 de enero - 15 de febrero

Segura, 2022ko abenduaren 23a.—Alkatea.

(8674)

Segura, a 23 de diciembre de 2022.—El alcalde.

(8674)